

## 2018KO LAN POLTSEN HAUTAKETA BATZORDEAREN AKTA

Garbitania Zero Zabor S.M.ko koordinatzaileen lan poltsa handiagotzeko; Administrari bat kontratatzeko eta lan poltsa eratzeko; gidari biltzaile, hezitzaile eta ingurumen teknikarien lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua.

**Data:** 2018/08/27  
**Tokia:** Lastaolako bulegoa  
**Ordua:** 12.00

### AZTERGAI ZERRENDA

1.- Lan-poltsen hautaketa prozesuaren 3. fasearen planifikazioa.

- Merituen puntuaketa

Batzordeko kideek egindako gidari-biltzaile eta administrarien lan-poltsen merituen balorazioak partekatu eta onartu dira. Parte-hartzaileek lortutako puntuaketa elkarrizketen emaitzekin batera argitaratuko da.

- Konpetentzien definizioa, elkarrizketen galderak eta balorazio sistema

Gidari-biltzaile eta administrarien lanpostuen konpetentzien definizioa, elkarrizketan egin beharreko galderak eta balorazio sistema partekatu eta onartu dira.

- Elkarrizketen epaimahaia

Gidari-biltzaile eta administrarien lan poltsen elkarrizketak egiteko bi pertsonako epaimahaiak osatuko dira.

- Egutegia eta lekua

- Administrarien lan poltsarako elkarrizketen datak ondokoak izango dira:
  - Irailak 13 eta 14
  - Irailak 20 eta 21
  - Bakoitzari dagokion ordua datozen egunetan argitaratuko da.
- Gidari-biltzaileen lan poltsarako elkarrizketen datak ondokoak izango dira:
  - Urriak 1etik 5era
  - Bakoitzari dagokion ordua datozen egunetan argitaratuko da.
- Elkarrizketak Garbitaniaren Akarregiko bulegoan izango dira. (Akarregi poligonoa 13, 1. Lokala)

## 2.- Bilkurako aktaren onarpena

Akta idatzi, irakurri eta aho batez adostua izan da.

Eta honekin, bukatutzat eman dugu bilera, 13:00etan.

Hernanin, 2018ko abuztuaren 27an



Mattin Aldaia (Lehendakaria)



Nora Etxaniz (Idazkaria)